



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Prentsa-oharra: 2009ko otsailaren 3a

Bihar Gernikan Osoko Batzarra ezeze odola emotea be izango dabe Batzar Nagusietako batzarkide jaun-andreek

Bihar Gernikan goizeko 9:30etan hasita egingo dan Bizkaiko Batzar Nagusien Osoko Batzarrak alkarkidetzazko ikutua izango dau, Osakidetzaren odola atarateko unidade mugikorra hantxe daukiela-ta hainbat batzarkidek odola emongo dabelako.

Batzarkide-Talde guztien aldezkotasuna jaso dau ekimen horrek eta helburutzat dauka herritar guztiei gogorazotea zenbaterainokoa dan odola batzeko beharizana eta zenbaiteraino garrantzia daukan horrek beste batzuen bizia salbetako.

Euskadiko osasun-agintariek epe laburrerako odolaren eta hemoeratorrien beharizanak handitu egingo dirala aurrikusten dabenez, odol emoitzak handitzen lagundu gura dabe Bizkaiko Batzar Nagusiek aitaturako ekintza horren bidez, nahiz eta 2008. urtean Euskadik bertoko beharizanetarako beste lortu, 100.000 emoitzatik gora hain zuzen be.

Gure Autonomi Erkidegoan 50.000 pertsonak behar dau urtero-urtero borondatezko odol emoitzetatik lortutakoari esker emoten jaken tratamendua, eta hori barik ezin izango leukiez osasuna berreskuratu edo bizi baldintzak hobetu.

Hori dala-ta, Bizkaiko Batzar Nagusietako batzarkide jaun-andreek eta langileek jarraibide izan gura dabe eta odola emongo dabe bihar, 9:30etan hasi eta honegaz batera doan Gai-Zerrendea aztertuko dauen Osoko Batzarra aprobetxatuta.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nota de prensa: 3 de febrero de 2009

Las apoderadas y los apoderados de las Juntas Generales realizarán mañana en Gernika donaciones de sangre coincidiendo con el pleno

El pleno de las Juntas Generales de Bizkaia que se celebra mañana en Gernika a partir de las 9:30 horas tendrá un matiz solidario, ya que muchas y muchos de los apoderados de esta institución realizarán donaciones de sangre a través de una unidad móvil de extracción sanguínea de Osakidetza.

El objetivo de esta iniciativa, que cuenta con el respaldo de todos los grupos junteros, es concienciar a la población sobre la necesidad de recoger sangre y sobre la importancia de la donación como transmisor de vida.

Las Juntas Generales de Bizkaia quieren con este gesto ayudar a que crezca el número de donaciones en previsión del aumento de las necesidades de sangre y hemoderivados que las autoridades sanitarias del País Vasco contemplan a corto plazo, pese a que nuestra comunidad logró en 2008 la autosuficiencia, sobrepasando por primera vez las 100.000 donaciones.

La donación voluntaria de sangre sigue siendo la única manera de que aproximadamente 50.000 personas de nuestra comunidad puedan recibir los tratamientos idóneos para recuperar su salud o mejorar sus condiciones de vida.

Por ello, los integrantes de las Juntas Generales de Bizkaia, desde sus apoderados y apoderadas hasta el personal de esta institución, pretenden dar ejemplo mañana coincidiendo con el pleno de las Juntas Generales de Bizkaia que comenzará a las 9:30 horas y que tendrá el orden del día que se adjunta junto a este documento.